



ESKOLAKO OHARRAK

GURASO ELKARTEA: ABENDUAK 14, ASTELEHENA, ARRATSALDEKO 16:35ETAN, OARSOLDEKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN ALDEKO PLATAFORMAK DEITUTA, MATRIKULAZIO KANPAINARAKO ARGAZKIA!!!

Oarsoaldeko Euskal Eskola Publikoaren aldeko Plataformak matrikulazio kanpainarako argazki bat ateratzeko deia egin digu eskualdeko guraso elkarteei. 16:35etan, abenduak 14 astelehenean. Horregatik, Elizaldeko ikas komunitate guztiari deia egiten zaio, eskolako gradetan elkartuko gara. Ikasle, langile, familia, animatu!



ESKOLAKO AZKEN EGUNA

Datorren abenduak 18an hiruhilabeteko azken eguna ospatuko dugu. Aurtengoan, COVID 19a dela eta, ez da azokarik ospatuko. Hala ere, zuen seme-alabei baserriar jantziarekin etortzeko gonbidapena luzatzen diegu. Bestalde, goizeko jardunean lan egiten ariko garela gogorarazten dizuegu, beraz, eskola 12:30etan bukatuko da etxeko bazkaltiarrentzat eta 14:30etan jangelako bazkaltiarrentzat.

GURASO ELKARTEA: SANTO TOMAS AZOKA

Hurrengo astean ezin izango dugu ohiko Santo Tomas azoka ospatu. Hala ere Guraso Elkartetik nolabaiteko ospakizuna egin nahi izan dugu eta horretarako BERTAKO PRODUKTUEN BI SASKI EDER zozketatuko ditugu eskolako familia guztien artean. Zozketan parte hartzeko eskolako e-mailera iritsiko zaizuen mezuan zuen izen abizenak sartu eta ZORTE ON!

Zortedunak nortzuk izan diren eskolako irratian esango dute abenduaren 18an bertan.

Eskolako helbide elektronikoa aktibatuta ahal izateko, hurrengo puntuan dituzue azalpenak



ESKOLAKO HELBIDE ELEKTRONIKOA

Azken asteetan jakinarazi dizuegun bezala, eskolako familia guztiek helbide elektronikoko korporatibo propioa duzue. Ikasturte honetan, hiruhilabeteko buletinak modu digitalean bidaliko dizkizuegu aipaturiko helbide elektronikora. Hori dela eta, ahalik eta azkarren aktibatzea beharrezkoa da. Zailtasunak izango bazenituzte jarri harremanetan zuen seme-alaben tutoreekin edo eta eskolako zuzendaritzarekin.

Aktibatzeke hauek dira eman beharreko pausuak:

- 1) www.gmail.com webgunean sartu
 - 2) familiaren helbide korporatiboa sartu (helbide berririk sortu gabe)
 - 3) "elizalde" pasa hitza sartu
 - 4) pasahitza berria sortzeko eskatuko dizue, ondo pentsatu eta nahi duzuen jarri
- Oharra: gmail kontua da.



OLENTZEROREN LAGUNAK

Kaixo lagunak! Zer moduz?

Aurtengoan Oiartzunen, Olentzero eta Maridomingiren etorrera ez dugu izango. Bizi dugun egoera dela eta, ezingo dugu Olentzero eta Maridomingirekin elkartu plazan urteroko moduan. Baina lasai, zuen gutunak noski jasoko dituztela. Urtero bezela ikastetxeetan bildutakoak iritsiko zaizkie eta baita liburutegian egongo den postontziaren bidez ere. Beraz, ez utzi azken egunerako gutunak! Gainera aurten, nahi izanez gero, olentzerotamaridomingi20@gmail.com posta elektronikora idatzi dezakezue.

Eta....abenduaren 24a gerturatu ahala, adi egon zaitezte sare sozialetara! Olentzero eta Maridomingiren berri izango duzue eta.

Ongi izan. Zaindu zaitezte eta laister arte.

Olentzero eta Maridomingiren laguntzaileak

ABARAXKA LUDOTEKAKO OHARRAK

"OIARTZUNGO IHOTIK" KARTA JOLASA

"Oiartzungo ihotik" karta jolasak bizitza hartu du!

Intxixuak, basandreak, sorginak, ote-gizona, zomorrozinko, suzko akerra, sua, kuestaziyua, auzoak.... batu ditugu karta jolas batean. Abaraxka Udal Ludotekak ihoteen karta jolasa sortu du. Diseinua Dixidu grafikoak egin du eta ilustrazioak losu Mitxelena Unsainek. Karta jolas hau ez da jolasa soilik. Ilusio, mimo eta maitasunez sortu eta landutako baliabide ederra da. Baliabide diogu, gure herriko ohiturak eta kultura, jolasean, era kolektiboan, euskaraz, hezkidetzan... jaso eta transmititzeko modua delako. Materiala kutxatxo eder baten barruan dator: karta hauekin nola jolastu, ihoteen historia eta hauen berri ematen duen liburuxka bat du eta 56 karta erakargarri. Karta jolas honekin hain maite ditugun ihotik urte osoan etxean izango ditugu. Jolasa eta kultura bat eginik... jolastuz ikasi! Oiartzuarren etxe guztietan egon beharreko jolasa!!

OIARTZUNGO IHOTIK KARTA JOLASA

SALMENTA PUNTUAK

- Abaraxka Ludoteka
- Dixidu diseinu grafikoa
- Elizalde Herri Eskola
- Haurtzaro Ikastola
- Intxixu AEK euskaltegia
- Labore Oarso
- Oiartzun Irratia
- Ehuntze espazioa
- Txispum aretoa (Hondarribia)

Hanemanezako: abaraxka.oartzun@gmail.com

15 €

Intxixuak, basandreak, sorginak, ote-gizona, zomorrozinko, suzko akerra, sua, kuestaziyua, auzoak... batu ditugu karta jolas batean.
Kutxa eder batean aurkeztuta, liburuxka + 56 kartak osatzen dute jolas hau.
Oiartzuarren etxe guztietan egon beharreko jolasa!!

ABARAXKA Udal Ludoteka

PREZIOA: 15 €

15 EUROS. SALMENTA PUNTUAK:

- Abaraxka Ludoteka
- Dixidu diseinu grafikoa
- Elizalde Herri Eskola (diru justua ekarria behar da)
- Hautzaro Ikastola
- Ehuntze espazioa
- Intxixu AEK euskaltegia
- Labore Oarso
- Oiartzun Irratia
- Txispum aretoa (Hondarribia)

Abaraxka udal ludotekari buruz gehiago jakiteko: www.gazteoiartzun.net

Ihotei buruz gehiago jakiteko: www.oiartzungoihotik.eus/

Harremanetarako: abaraxka.oiartzun@gmail.com

UDALEKO OHARRA

Mugikortasuna

Udalak gure mugikortasun ohiturak ezagutu nahi ditu. Momentu hauetan, mugikortasuna plana osatzen ari dira eta hobetzeko aukerak zeintzuk diren gertutik ezagutu nahi ditu. Horretarako, hemen duzue interneteko lotura: <https://es.surveymonkey.com/r/WX3JFP5>

Parte hartzeagatik bakarrik, bizikleta baten zozketan parte hartuko duzue. Animatu



ABENDUAK 12, LARUNBATA
ZINEMA

INURRI ZAPALZAILA

LUKAS GAIXOARI DENA OKER ATERATZEN ZAIO. DUELA GUTXI BESTE HIRI BATERA ALDATU, ETA LAGUN BAKAR BAT ERE EZ DU EGIN. HAREN ARREBA TIFFANYK BEHIN ETA BERRIZ GOGAITZEN DU ETA, HAU DENA GUTXI BALITZ, BERE GURASOEK KASU ZIPITZIK ERE EZ DIOTE EGITEN. LUKASEK BADU ZALETASUNIK: INURRIEK EGITEN DITUZTEN LUR-MUINO TXIKIAK ZAPALDU ETA OSTIKATU. ERA HORRETAN APALTZEN DU BERE FUSTRAZIOA...

16:30 LUDOTEKAN

AFORUA DELA ETA ZUEN ASISTENTZIA KONFIRMATZEA BEHARREZKOA DA. MEZU BAT BIDALI 645005496 TELEFONORA.



